

NO FUTURE

HIRIGINTZA JAIALDIA
URBANBATfest

DEIALDIA: HIRI-BERRIKUNTZEN INBENTARIOA ETORKIZUN (EZ)POSIBLE BATERAKO

URBANBATfest 2022. 11. edizioa
No future
Hirigintza jaialdia
Azaroa 2022. Bilbo

1 DEIALDIAREN XEDEA

URBANBATfest edizio honetan, *No future* goiburuean, **gogoeta-gune bat ireki dugu hirien etorkizunari buruz, arkitekturak eta hirigintzak krisi multidimentsionalaren testuinguru honetan duten erantzukizunari buruz**, haien konplizitateari eta erresistentzia-moduei buruz, haien aukerei eta mugei buruz, lan-tresnei eta -metodologiei buruz, beste diziplina batzuekin duten harremanari buruz, esku hartzeko eremuei buruz, etorkizuneko pentsamolde berriak sortzeko gaitasunari buruz, eta egungo ikuspegiei buruz.

No future baieztapenak, berkonstestualizatua, adierazten digu etorkizun posible bakarra ziurgabetasunez betetako orainaldi hau dela, etorkizuna desitxuratzen duena, aurreranzko edozein proiektzio-ahalmen deuseztatzen duten gertaeren jario baten zorabioean. Eta, hala ere, aukera handia izan daiteke, etorkizunik ez dagoenean, hausturak, adostasunak eta proiektzioak behar dituen etorkizun bat asmatu behar dugulako.

Testuinguru horretan, **jaialdiak gazteek bultzatutako proiektu eta ekimenetarako nazioarteko deialdi bat irekitzen du, hirigintzaren, arkitekturaren, artearen eta kulturaren esparruetatik egungo erronken aurrean hiri-etorkizuna eraikitzeko berrikuntza motaren bat proposatzen dutenak.**

+ Jaialdiaren testu osoa [hemen](#)

Aukeratutako proposamenek hainbat modutan parte hartuko dute jaialdian:

1.-2022ko azaroan Bilboko [La Terminal](#), kultur eta sormen industriaren fabrika, jarriko den **erakusketa kolektiboa**.

2.-2022ko azaroaren 10ean egingo den aukeratutako proiektu batzuen **on-line aurkezpen jardunaldia + on-line sorkuntza tailerra** azaroaren 17an.

3.-Proiektuetako batzuek jaialdira joateko aukera izango dute aukeratutako **proiektuaren inguruko jarduera bat garatzeko** 2022ko azaroan zehar.

4.-Hautatutako esperientziak, proiektuak edo ekimenak jaialdiak argitaratutako liburu batean argitaratzea.

2 NORI ZUZENDUTA DAGO?

Jaialdiaren edizio honen gaia landuko duten ekimenak eta proiektuak bilatzen ditugu: No future, 35 urtera arteko gazteek garatutakoak edo adin horretako taldeetan parte hartzen dutenak. Hirigintzaren, arkitekturaren, artearen eta kulturaren alorretako ekimen pribatu zein publikoak, egungo erronken aurrean hiri-etorkizuna eraikitzeko nolabaiteko berrikuntza proposatzen dutenak.

Norbanakoek zein taldeek parte hartu ahal izango dute (administrazio publikoak, profesional independenteak, erakunde publiko zein pribatuak, elkarteak, kolektiboak...), parte-hartzaile bakoitzeko proposamenen mugarik gabe.

3 HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenetan, honako alderdi hauek baloratuko dira:

- **Proposamena bat etortzea jaialdiaren aurtengo edizioko gaiarekin: No Future.**
- **Proposamenak hirigintzarekin eta arkitekturarekin duen lotura.**
- **Proposamenaren diziplina artekotasuna.** Beste diziplina batzuekin duen harreman eta hibridazio maila, hala nola artearekin, kultura-jardunbideekin, gizarte-zientziekin eta beste edozein diziplinarekin.
- Proiektuaren **berrikuntza maila.**
- **Biztanleengan eta lurraldean duen inpaktua.**
- Proiektuarekiko **kolaborazioak eta inplikaturako eragileak.**
- Proiektuak **errepikatzeke ematen duen aukera.**

4 ZUZKIDURA EKONOMIKOA

Antolakuntzak bere gain hartuko ditu hautatutako lanen erakusketa-produkzioaren eta liburuaren argitalpenaren gastuak.

Online aurkezpenetarako hautatutako proiektuak + online tailerra: 300 €

Aurrez aurreko hitzaldirako hautatutako proiektuak: bidaia-gastuak, ostatua eta pertsona baten dietak + 300€

Hautatutako proiektuen artean, antolatzaileek beste proiektu batzuk hautatuko dituzte, aurkeztutako proiektuarekin lotutako jarduera bat garatzeko. Horretarako, proposatutako jardueraren deskribapena eskatzen da proiektua aurkezteko formularioan. Jarduera hau garatzeko hautatuak izanez gero, jaialdiak bi pertsonaren joan-etorriak, ostatua eta dietak ordainduko ditu azaroan Bilbon jaialdiak iraungo duen bi egunetan, eta 1000€ arteko produkzio-ordainsariak hautatutako jarduera bakoitzerako.

5 EPAIMAHAIA

Jaialdiaren antolakuntzako kideek osatuko dute epaimahaia. Proposamenak entregatzeko epea amaitu eta ondorengo 30 egunetan jakinaraziko da epaimahaiaren erabakia. Epaimahaiak interesgarritzat jotzen dituen hainbat proposamen aukeratu ahal izango ditu eta, jasotako proposamenen kalitatearen eta egokitasunaren arabera, erabaki lezake batere proposamenik ez hautatzea.

6 ARGITARATZEA

URBANBATEk bere komunikabideetan (webgunea, sare sozialak, kartelak, buletinak, jaialdiaren katalogoa...) argitaratu ahal izango ditu aurkeztutako lanak, euskarri digitalean edo paperezko euskarrian. Antolatzaileek ahal duten guztia egingo dute tokiko, nazio mailako zein nazioarteko komunikabideetan hautatutako proposamenen zabalkundea egiteko.

7 DERECHOS DE PROPIEDAD INTELECTUAL

Egileek eta egile-kideek jarraituko dute izaten aurkeztutako lanen jabetza intelektuala (egiletasuna, lanaren jatorria eta oinarri hauetan adierazitako lagatako eskubideen erabateko erabilera). Deialdi honetan parte hartzen duten guztiek ematen dizkiote URBANBATi lanak erakusteko eta argitaratzeko eskubideak, nahiz eta egileek eurek ere erakuts eta argitara ditzaketen beren kabuz.

8 CALENDARIO

- ◆ **Deialdiaren irekiera:**
2022/05/11
- ◆ **Proposamenak aurkezteko epea:**
2022/06/10, 23:59
- ◆ **Hautatutako lanen berri ematea:**
entregatzeko epea amaitu eta ondorengo 30 eguneko epean.
- ◆ **Hautatutako proposamenen aurkezpen laburrak online:** 2022/11/10.
- ◆ **Lankidetzta tailerra online formatuan**
2022/11/17.
- ◆ **Aurrez aurreko jarduerak jaialdian:** azaroak 11-12-18 eta 19

9 ESKABIDEAK EGITEA

Bidal ezazu zure eskabidea 2020/06/10 23:59 baino lehen, [inprimaki hau](#) beteta.

** Beharrezkoa da gmail kontu batekin "logueatzea" inprimakian sartzeko eta eskatzen dizkizuegun fitxategiak igotzeko.*